









CASA DE EJERCICIOS.-ARANZAZU
BIBLIOTECA

M. - 16168

R. - 8562


Δ T. V. 6597







BEARGUILLEAREN ARGUIA









LICENCIA.

Por las presentes concedemos la licencia que V. á nombre del R. P. Legarra, de la Compañía de Jesús, solicitó en su reverente instancia de fecha 28 de Agosto último, para imprimir y publicar la traduccion al vascuence de la obra titulada LA LUZ DEL MENESTRAL; toda vez que nada se halla en ella contrario al dogma católico y sana moral, según el censor que la ha examinado, y siendo, como cree, su lectura de gran provecho para todo pueblo vascogado y para la clase obrera en particular.

Dios guarde á V. muchos años Vitoria 2 de Noviembre de 1896.—El Obispo de Vitoria.—Sr. D. Jose Leoncio Ortiz de Zárate, Presbítero.—Vitoria.

Liburu onen eguilleac segurutzat diona.

Gure Aita chit Santu Urbano VIII.^{ren} aguindua beteaz, aguertzen det, ecen ceruticaco argui, icusaldi, etorquisunen asmaera, eta oraindic santutzat eman edota beatificatu gabeco cembait bere serbitzariri Jaungoicoac eguin ditzela, diodan, beste favore señalatuaz diodan guciari, utseguin lezaquean lurreco historia bati baño fede eta sinistanza gueyago ematearen billa ez naicela, eta iñoiz edo berriz oyetaco cembait goratzeco santuaren edo santutasunaren icenaz usatzen badet, bertute chit andi eta goratu bat aditzera ematea baicic billatzen eztedela, onequin Aita Santuaren uste eta iritzi seguru eta eciñ utseguin lezaqueanari iñola ere aurre artzeric buruac eman gabe, bada, gai oyen gañean bear dana erabaquitzea eta aguertzea, baccarrie berari dagoquo, eta berac erabaquitzen eta aguertzen duanera ipintzen det liburu onetan esango dedan gucia.

SARRERA.

Necazaria, arotza, arguiña, igueltzer-
roa, edo cere copetaco icerdiaz cere
ogua irabaci bearrean zaudenac becela
liburu onetan iracur-aldicho bat eguiten
cere poz aldia artzen dezun nornai cera-
la; eztet uste bertutearen goyenera igo-
tzea, egunoroco beren lan eta arazóac
galerazen dielacoan dauden ayelacoa ce-
rala. Baldiñ, ala zori gaiztoan, uste gal-
garri onetan bazaude, Jaungoicoagatic
desengaña zaite, cerren zure estadu edo
bicimodua ceñ eta munduaren beguie-
tan humillagarria dirudiana dan, gure
animen etsai eriozcoac beguietaratzen
dizuna ez becelacoa dan. Jaunac bere
asmo gorde eta ezcutatuetan, aita bigu-
ñaren gobernu zucenaz eternidade gu-
citic prestatua ori ceucaquizun, zu gora-
tu nai cinduzquean birtutearen malla

artara igotzeco zuretzat berarizco eta egoquiena becela,

Mundu oni bere Eguille Jaungoicozcoac bere gloriaraco edo bere ongarri edo perfeccio miragarriac aguertzeco eman cion edertasun gucia gure beguietara aguer dezan, añ bearra zayo zuc bertan daucazun bearguintz edo officioa, nola erregueác escuan daucan cigor edo cetroa. Bacoitzaren onra eta gloria dago, bada, ez aimbeste bacoitzác beargai andi eta goratuaren iduquitzean, nola beargai ori Eguillearen asmóen erara eguitean. Mundu guci au Jaungoicoaren gloria beguietaratzen duen comedia eguiten dan biltiqui edo teatro aundi bat becela da. Teatro onetan guizon eta emacume guciac languille eta dembora berean beguira daudenac dira, eta guciac bacoitzaren arguitasun, gaitasun eta habilidadea chit ongui ezagutzen duen Zucenzalle Jaungoicozco arrec aguintzen dien papera eguin bear dute. Eta ala, baldin comedian morroyaren bearguintza eguiten duenac

obeto eguiten badu bere papera, emperadorearena eguiten duenac berea baño, beguira dauden guciac oni farra eta burla eguiten dioten becela, besteai alde gucietatic alabanzac eta coróac artzen dituen unean, guisa berean Juez guciz jaquintsu eta zucena dan Jaungoicoac ez aimbeste beguiratzen du gugan cer personen papera comedian eguiten degun, au da, batec languillearena, bezteac echejabearena, onec Erligiosoarena eta arc bestelacoarena nola bacoitzac eman zayon papera ondo eguiten duen, eta eguiten duen eran ematen du ordaña-ria, araco eriotzac curtiña idiqui eta guizonarentzat mundu onetaco comedia aitutzen danean

Oyec gure Erligio eguiazcoác eracusten dizquigun eguiac dira. Gaucen azala baño icusten ez duten guizónen beguietan bacarric beargai eta empleo andi eta goimallatacoac dira laudagarriac, eta arritzecoac; baña guizonaren biotzeco zoco gordeenac chit ondo dacusquien, eta gauza bacoitzari bere balio justu eta

eguiazcoa ematen dion Jaungoicoaren beguetan balio ber-bera mereci dute lan umill eta despreciagarrientzat dandena ongui eguiten dituztenac. Juez chit zucen eta justuac becela, beren cargu eta bearguintzen malla andi eta goitituaz lausotu, eta beren obligacioac ongui betetzeaz aztu ciran guciac bere tribunal Jaungoicozcoac gaiztotzat ematen dituen unean bertan goratzen eta gloriaz betetzen ditu beren neque-lanetan, bearreco edo pobreen Aita deitzeaz gloriatzen dan argana beren asmoac eta biotza goratzen jaquin zutenac.

Biotz on, bada, iracurle bearguillea, cerren santu bat, eta santu andi bat ere, izan cindezquean, baldiñ zure eran-neraren credura zure animaren gañera Jaunac issurico dituen graciai laguntzen badiezu. Bacarric onela guciac erregue diran erri artaco lagunetaco bat egumen batean izan cindezque, cerren glorian guciac Jesucristorequin erreinatzen duten. Gauza atseguin eta andia da erligioa eta erria gordetzeco

hiltzea; baña etzaite utzi cristau-erligioaren contraco irabi eta autsiabartzac ontzat iduquitzen; aditzeco lecuric ez eman lana cernetaraño goratuaz zure malla edo dignidadea gueyeguirano goratzen duten itzontziai, oyec alabaña alaño guticiatzen dituzten goimalla eta dignidade andietara zure gorputz hillaren gañetic igotzeco beren itz leun eta engañuaz zu araguzco cañoi eguin nai cinduzqueen cere guizon illtzalleac dira. Beren paper eta itz ederraquin chit goratzen zaituztela, dirudi; baña eguiaz eta beguiaz ondoraño beeratzen zaituzte; cerren zure lan nobleac egunetic egunera astun eta gogaicarriago eguiñ, eta griña liquichen uztarpean ipintzen zaituzten. Bacarric cristau-erligioan topatzen du lanác bere anditasun eguiazcoa, cerren erligio onetan, eta bacarric onetan serbitzen dion lanác cristauari Jaungoicoaren justicia-ganaco eguin dituen zórrac ateratzeco preciotzat, eta betico gloria irabazteco merecimentutzat. Cristau-espírituaz issueritaco icerdi tanta guciac betico zure

coroa apainduco duten beste aimbeste perla biurtuco zaizquitzu ceruan. ¿Nor onequin arrituco da antziñaco gure asábac beren bearguintz edo oficioetaco trésnac beren echeetaco atalburuan ipintzeaz; onec orma, arc guraiceac, besteac anezquea, urrengoac aizcora, nobleci eguiazco eta beticoaren señaie eta ezagugarria becela? Maite zazu, bada, ascoan iduqui zazu Jaungoicoac naita daucazun bearguintz edo oficioa: zaya zaite Jaungoicoac zugandic uste duen becela lan orri cobru ematera, eta onequin zue uste baño santutasun andiagora igococera.

Zu onen ezagüeran sartzeco ez arrazoyaquin, ezpada icasi danarequin, beguietaratzera noaquizu, zue daucazun bearguintzaren guisacoa zuten, eta bear bada oraindic humill eta necagarriagoe-tan jardunaz, Jaungoicoaren Biotza, berengana itsutu eta beraren graziaz apaiñduta hill ciran, eta erreguéac bérac daucatena baño erreinu eta glori andiagobaten jabe ceruan eguin ciran cristau

miragarrien ejemploac. Bear, becela oyec
 icas itzazu, beren ejemplo ongarriac
 imitatzerá al guciáz sayatuaz. Martirien
 fest-egunetan beretaco bacoitzác eguin
 cituen gáuzac elizan iracurtzearequin
 Elizaren lenengo guizaldietan Jesucris-
 togatic beren bicia ematera cristauac
 animatzen ciran. Heri eta sendabitar-
 te-coaz ateronzco guciac ganaz gauz oyec
 zutic aditzen cituzten, aomen andico
 person ayen oñátzac jarraitzeco prest
 ceudela, aditzera emanaz. Probechuaz
 iracur itzatzu bada, beguietaratzén diz-
 quitzudan bicitzac. Antziñaco guizon an-
 di sonatuac escribituta utzi cigutenetic,
 edo ayec señalatzen dituzten arguibide-
 etatic atera ditut nie bicitz oyec, eta
 onelaco escribituetan guizon ayetaco ba-
 coitzaren esanác, bestelaco eunena ba-
 lio du.

Eta zuc beren antzera eguin dezazun,
 beguietaratzén dizquitzudan persona so-
 natu oyetaco bacoitzác, beren aurrecoac
 becela eguin zuela ezagu dezazun, ipi-
 ñico dizquitzut aurrera gure Salbatzalle

Jaungoicozcoaren lan eta eguicari agui-
rienac, norc bearguille pobreen onrara-
co, eta oyei biotz on emateco, jayo nai
izan zuen, ez emperadore edo erregue-
acgandic, nai izate utsez jayo citequean
becela, eta glori andico bere asabac izan
ciran becela, ezpada beren oguia beren
becoquico icerdian busti-bearra zuten
languille beartsu batzuecgandic. Jarrai
itzazu beren pausóac, beren serbitzari
nobleen antzera, eta patu oneco izango
cera bicitz onetan, erbestetu pobre bat
izan ditequeaneraño, eta erreinatuco de-
zu bestean azquengabeco seculetan.

Beguietaratu nai nizuqueena naspillan
ez ipintzeco, amabi buru edo zatitan
paraco det Jesusen bicitza, urtearen
illetaco bacoitzeraco bat artu dezazun.

Asi gaitean Jaungoicoaren bendicioa-
requin eta bere Ama chit santaren eta
Aita san Jose gloriosoaren laguntzare-
quin eta beren mantupean.